



2024ko edizioa

Irakurketa errazeko gida



# NAFARROAKO LAN AUTONOMOIA AITORTZEKO SARIAK 2024

## Aurkibidea

Zer da dokumentu hau? .....	3
Ezagutu beharreko hitz batzuk .....	4
<b>Sariak</b> .....	<b>5</b>
Zer dira sari hauek? .....	5
Zein dira sariak? .....	5
Zer sari jasoko dute irabazleek? .....	6
<b>Sarietarako hautagaiak</b> .....	<b>7</b>
Nor aurkez daiteke sarietara? .....	7
Non aurkez dezaket nire hautagaitza? .....	7
Noiz aurkez dezaket nire hautagaitza? .....	7
Zer agiri aurkeztu behar ditut hautagai izateko? .....	8
Zer gertatzen da eskabidea ez badut ongi betetzen edo agiri guztiak aurkezten ez baditut? .....	8
<b>Irabazleak hautatzea</b> .....	<b>9</b>
Nola hautatzen dira lehiaketako irabazleak? .....	9
Nork osatzen du epaimahaia? .....	9
Nola ematen dute botoa epaimahaiko kideek? .....	9
Nola emango du botoa publikoak? .....	10
Nola hartuko da azken erabakia? .....	10
<b>Sarien modalitateetara aurkezteko inprimakia</b> .....	<b>11</b>
Nola bete behar duzu inprimakia? .....	11
<b>Aipamen berezira aurkezteko inprimakia</b> .....	<b>12</b>
Nola bete behar duzu inprimakia? .....	12

## Zer da dokumentu hau?

Nafarroako Gobernuak 2024ko

Nafarroako Lan Autonomoa Aitortzeko Sariak eskaintzen ditu.

Sari hauen bidez aitortza egin nahi zaie

Nafarroako langile autonomo onenei.

Dokumentu honek gai hauetarako arauak azaltzen ditu:

→ Sari horietako batera hautagai moduan aurkezteko.

→ Epaimahaiak saridunak nola erabakiko dituen ezagutzeko.

Dokumentu hau irakurketa errazerako moldatu da,  
irakurtzeko zailtasun handiagoa duten pertsonen  
arauak ulertzen laguntzeko.

Sariketari buruzko informazio garrantzitsuena eskaintzen du  
dokumentu honek.

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko ditu  
irakurketa errazera moldatu gabeko arauak.

Moldatu gabeko arauak izanen dira baliozkoak,  
irakurketa errazeko arauetan adierazitako zerbaitekin bat ez datozenean.

## Ezagutu beharreko hitz batzuk

- **Hautagaitza-zerrenda:** pertsona batek egiten duen proposamena lanpostua edo saria lortzeko.
- **Lanbide elkargoa:** lanbide bera duten pertsonen elkarte, adibidez, medikuak, abokatuak.
- **Epaimahaia:** lehiaketa edo azterketa batean zerbait edo norbait kalifikatzen duten pertsonen taldea.
- **Modalitatea:** mota, klasea, maila.
- **Lanbide elkargoko mutualitatea:** pertsona talde bat, lanbide berean lan egiten dutenak eta kuota bat ordaintzen dutenak Gizarte Segurantzaren eskubide berberak izateko. Arkitekto, abokatu edo medikuena bezalako lanbideetan izaten dira.
- **Langile Autonomoen Araubide Berezia:** langile autonomoendako berriazko sistema da, Gizarte Segurantzaren barruan. Langile hauek Gizarte Segurantza ordaintzen dute eta trukean onura batzuk jasotzen dituzte, hala nola, erretiro-saria, edo diru-kopuru bat gaixo daudenean eta lanik egin ezin dutenean.
- **Nekazaritzako elikagaien sektorea:** elikagaiak prestatu, kontserban jarri eta ontziratzen dituzten enpresen multzoa. Adibidez, kontserba-enpresak, edo edariak botilaratzen dituztenak.
- **Gizarte Segurantza:** erakunde bat da. Pertsonen babesaz arduratzen da horiek egoera zehatz batzuetan daudenean: lanik gabe, erretiroan edo gaixorik.
- **Langile autonomia:** Modu independentean eta bere kontura lan egiten duen langilea.

# Sariak

## Zer dira sari hauek?

Sari hauen bidez aitortza egin nahi zaie Nafarroako langile autonomo onenei.

## Zein dira sariak?

17 sari daude, 16 modalitatetan eta aipamen berezi batean banatuta.

- **1. modalitatea:** gizonen enpresa arloko esperientziarik onena.
- **2. modalitatea:** emakumeen enpresa arloko esperientziarik onena.
- **3. modalitatea:** gazteen enpresa arloko esperientziarik onena.
- **4. modalitatea:** desgaitasuna duten pertsonen enpresa arloko esperientziarik onena.
- **5. modalitatea:** enpresa arloko esperientzia berritzailearik onena.
- **6. modalitatea:** langile autonomorik onena nekazaritzan, abeltzantzan eta nekazaritzako elikagaien sektorean.
- **7. modalitatea:** langile autonomorik onena iturgintzan, elektrizitatean, berokuntzan, klimatizazioan, gasa eta suteen prebentzioan eta ingeniarietza ezberdinetan.
- **8. modalitatea:** langile autonomorik onena eraikuntzan, zurgintzan, ebanisterian, margolaritzan, igeltserotzan, barne-diseinuan, eta paisajismoan.
- **9. modalitatea:** langile autonomorik onena merkataritzan, jantzigintzan eta zapatagintzan.
- **10. modalitatea:** langile autonomorik onena motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketan, txapa eta pintura tailerretan eta metalezko piezen fabrikazioan.

- **11. modalitatea:** langile autonomorik onena garraioan eta biltegiatzean.
- **12. modalitatea:** langile autonomorik onena ostalaritzan, gozogintzan eta okintzan.
- **13. modalitatea:** langile autonomorik onena informazioan, komunikazioan, marketin eta publizitatean, informatikan, robotikan, administrazio jardueretan, aholkularitzan, abokatutzan, lan harremanetarako graduatan eta zerbitzu osagarrietan.
- **14. modalitatea:** langile autonomorik onena hezkuntzan eta prestakuntzan.
- **15. modalitatea:** langile autonomorik onena osasungintzan, edergintzan eta zaintzan, farmazian eta animaliekin zerikusia duen ororekin lotutako jardueretan.
- **16. modalitatea:** langile autonomorik onena jarduera artistikoetan, aisialdirako eta entretenimendurako jardueretan eta zerbitzu soziokulturaletan.
- **Aipamen berezia:** Epaimahaiak aitortza berezia egingen dio pertsona bati bere lanbidean egindako ibilbideagatik eta bere lanak izan duen garrantziagatik, dela bere langileendako, bere herriarendako, edo nafar gizartearendako, oro har.

## Zer sari jasoko dute irabazleek?

Irabazleek diploma eta garaikur bana jasoko dute urriaren 2an, asteazkena, egingen den jendaurreko ekitaldian. Nafarroako Gobernuak lan arloko arduradunak banatuko ditu sariak.

# Sarietarako hautagaiak

## Nor aurkez daiteke sarietara?

Sarietara aurkez daitezke:

- Gizarte Segurantza Langile Autonomoen Araubide Berezian ordaindu edo lanbide elkargoaren mutualitatea ordaindu eta Nafarroan lan egiten dutenak.
- Gizarte Segurantza Langile Autonomoen Araubide Berezian ordaindu edo lanbide elkargoaren mutualitatea ordaindu eta Nafarroan lan egin izan dutenak baina jada ez.

Ezin zara aurkeztu aurreko urteren batean saria irabazi baduzu.

## Non aurkez dezaket nire hautagaitza?

Aukera hauek dituzu:

- Posta elektronikoaren bidez: [trabajoautonomo@navarra.es](mailto:trabajoautonomo@navarra.es)
- Internet bidez, esteka honetan: [Erregistro Orokor Elektronikoa](#)
- Zuzenean:
  - Erregistro kontuetan laguntza emateko bulegoak. [Begiratu zerrenda.](#)
  - Postako bulegoetan.
  - Espainiatik kanpo bizi bazara, Espainiak atzerrian dituen ordezkarietzetan, hala nola, enbaxada edo kontsuletxeetan.

## Noiz aurkez dezaket nire hautagaitza?

Apirilaren 9tik, asteartea, **apirilaren 25a arte, osteguna.**

## Zer agiri aurkeztu behar ditut hautagai izateko?

Honako agiri hauek aurkeztu behar dituzu:

- Eskabide-eredu ofiziala, hautagaitzarako datuak eta zein modalitatetan aurkezten zaren adieraziz. Sariaren antolatzaileek zure hautagaitza beste modalitate batera aldatu ahalko dute, egokiagoa dela uste badute.
- Agiri bat, saria zergatik merezi duzun azalduz. Agiri horri azalpen txostena deitzen zaio. 500 hitz izaten ahalko ditu gehienez.
- Zure negozioaren argazki bat. Hala egiten baduzu, zure argazkia eta datuak webgune honetan kaleratuko ditugu: [www.navarraemprende.com/elfuturoaturitmo/](http://www.navarraemprende.com/elfuturoaturitmo/)
- Zure aldeko gutunak ere aurkezten ahal dituzu. Beste pertsona batzuek sarietara aurkeztu duzun hautagaitza babestuz idatzitako agiriak dira.
- Azalpen memorian adierazten dituzun merezimenduak indartzeko garrantzitsua iruditzen zaizun edozein agiri.

## Zer gertatzen da eskabidea ez badut ongi betetzen edo agiri guztiak aurkezten ez baditut?

Eskabidea zuzentzeko eskatuko dizugu, edo falta diren agiriak aurkezteko.

5 egun izanen dituzu horiek egiteko.

Ez badituzu zuzenketak egiten zure hautagaitza baztertu egingen dugu.



# **Irabazleak hautatzea**

## **Nola hautatzen dira lehiaketako irabazleak?**

Irabazleak hautatzea hauen mende egongo da:

- Epaimahaiko kideen botoak.
- Publikoaren botoak, hau da, lehiaketa honetan botoa eman nahi duten Nafarroako pertsona guztienak.

## **Nork osatzen du epaimahaia?**

Nafarroako Lan Autonomoaren Kontseiluko kideek osatzen dute epaimahaia.

Kontseilua honako hauek osatzen dute: Nafarroako Gobernuako kideek, langile autonomoen elkarteek, enpresarien elkarteek eta sindikatuek.

## **Nola ematen dute botoa epaimahaiko kideek?**

Epaimahaiak hautagaitzak berrikusiko ditu eta honako merezimendu hauek baloratuko ditu:

- Hautagaiaren lan ibilbidea.
- Lan jardunbide egokiak, beste herrialde batzuekin izan duen lan esperientzia, edo bere lanak bere inguruari edo gizarteari ekarri dizkion onurak.

Epaimahaiak tratu bera emanen die hautagai guztiei, eta erabakiak argitasunez eta objektibotasunez hartuko ditu, hots, datuetan jarriko du arreta eta ez iritzi pertsonaletan.

## **Nola emango du botoa publikoak?**

Sarietarako hautagaitza guztiak kaleratuta egongo dira maiatzaren 13an, astelehena, webgune honetan:

[www.navarraemprende.com/elfuturoauritmo/](http://www.navarraemprende.com/elfuturoauritmo/)

Herritarrek ikus ditzakete eta nahiago dutenari botoa eman maiatzaren 13tik, astelehena, maiatzaren 31 arte, ostirala, egun hori barne.

## **Nola hartuko da azken erabakia?**

Epaimahaiak 13 puntu eman ahal izango dizkio, gehienez, proiektu bakoitzari.

Publikoak ematen dituen botoen balioa ere 13 puntu izan daiteke, gehienez.

Epaimahaiaren eta publikoaren puntuak batuta puntu gehien duen hautagaitzak irabaziko du saria.

Bi hautagaitza badaude puntu berberekin,

Nafarroako Lan Autonomoaren Kontseiluko lehendakariak erabakiko du nor den irabazlea.

Epaimahaiak saria irabazlerik gabe uztea erabakitzen ahal du hautagaiek merezimendu nahikorik ez badute.

Inork ezin izanen du epaimahaiaren erabakiaren aurka jo.

# Sarien modalitateetara aurkezteko inprimakia

Hauxe duzu zure hautagaitza sariketako 16 modalitateetako batera aurkezteko inprimakia.

Inprimaki honek aukera ematen du pertsona batek beste pertsona bat aurkezteko hautagai gisa.

## Nola bete behar duzu inprimakia?

Jaitsi inprimakia [hurrengo estekatik](#) eta bete ordenagailuz.

→ Taularen lehen zatian

inprimakia aurkezten duen pertsonaren datuak agertuko dira:

- Zu bazara sarietarako hautagaia: idatzi zure datuak.
- Beste pertsona bat aurkezten baduzu: idatzi zure datuak, ez hautagaiarenak.

→ Taularen bigarren zatian honako hau adierazi behar duzu:

- ..... ordezkatzuz: idatzi sarietara aurkeztu duzun hautagaiaren datuak.
- Neure izenean: zu zara sarietara aurkezten den hautagaia. Inguratu aukera hau. Ez duzu ezer idatzi behar.

→ Bigarren taulan honako datu hauek agertuko dira:

- [Modalitatea](#): adierazi modalitatearen zenbakia.
- Hautagaitzaren datuak: idatzi hautagaiaren izena. Egoitzan dioen lekuan, hautagaiak zuzentzen duen enpresaren izena idatzi behar duzu.

Oroitu data jartzeaz. Inprimatu eta sinatu.

Erantsi azalpen txostena

eta hautagaitza indartzeko dituzun bestelako agiriak.

Zure datuak sarietako hautagaitzak kudeatzeko soilik erabiliko ditugu.

# Aipamen berezira aurkezteko inprimakia

Hauxe duzu zure hautagaitza sarien aipamen berezira aurkezteko inprimakia.

Inprimaki honek aukera ematen du pertsona batek beste pertsona bat aurkezteko hautagai gisa.

## Nola bete behar duzu inprimakia?

Jaitsi inprimakia [hurrengo estekatik](#) eta bete ordenagailuz.

→ Taularen lehen zatian

inprimakia aurkezten duen pertsonaren datuak agertuko dira:

- Zu bazara sarietarako hautagaia: idatzi zure datuak.
- Beste pertsona bat aurkezten baduzu: idatzi zure datuak, ez hautagaiarenak.

→ Taularen bigarren zatian honako hau adierazi behar duzu:

- ..... ordezkatzuz: idatzi sarietara aurkeztu duzun hautagaiaren datuak.
- Neure izenean: zu zara sarietara aurkezten den hautagaia. Inguratu aukera hau. Ez duzu ezer idatzi behar.

→ Bigarren taulan honako datu hauek agertuko dira:

- [Modalitatea](#): adierazi modalitatearen zenbakia.
- Hautagaiaren datuak: idatzi hautagaiaren izena. Egoitza dioen lekuan, hautagaiak zuzentzen duen enpresaren izena idatzi behar duzu.

Oroitu data jartzeaz. Inprimatu eta sinatu.

Erantsi azalpen txostena

eta hautagaitza indartzeko dituzun bestelako agiriak.

Zure datuak sarietako hautagaitzak kudeatzeko soilik erabiliko ditugu.

Nafarroako Lan Autonomoa Aitortzeko Sarien arauak 2024  
© Nafarroako Gobernua Lan Zerbitzua.

Irakurketa errazeko moldaketa eta testuen baliozkotzea:  
**Estudio Oscar Larrañeta**

Azalaren diseinua:  
**Garlic & Waters**

Irakurketa errazeko logotipoa azalean:  
© Inclusion Europe

Argibide gehiago jasotzeko:

<https://www.inclusion-europe.eu/easy-to-read/>